



## **Ikasmina DoKS:**

Gipuzkoan bizitza guztian zeharreko  
ikasketari buruzko dokumentuak

# **Ikasten duten pertsonak eta lortutako ikaskuntza-maila**

**84. dokumentua**

**2022ko apirila**



## AURKIBIDEA

1.	<b>Sarrera .....</b>	<b>3</b>
1.1.	Sarrera.....	3
2.	<b>Ikaskuntzan parte hartzea .....</b>	<b>4</b>
2.1.	Pertsonak eta ikasteko jarduera.....	4
2.2.	Pertsonak eta ikaskuntza formala.....	6
2.3.	Pertsonak eta ikaskuntza ez-formala .....	7
3.	<b>Ikaskuntzarako motibazioak eta oztopoak .....</b>	<b>8</b>
3.1.	Bizitza osoan ikasteko arrazoiak .....	8
3.2.	Ikaskuntza-jardueretan parte hartzeko oztopoak.....	9
4.	<b>Ikaskuntzako ibilbidea eta ikasteko aurreikuspena.....</b>	<b>11</b>
4.1.	Ikaskuntza jardueretan jarraitzea.....	11
4.2.	Ikasten jarraitzeko aurreikuspenak .....	12

# 1. Sarrera

## 1.1. Sarrera

Dokumentu honen helburua da ikaskuntza-jarduerari dagokionez lortutako emaitzen panela<sup>1</sup> aurkeztea; zehazki, ikaskuntza-prozesuetan pertsonak lortutako gehieneko ikasketa mailaren arabera dauden desberdintasunei dagokienez.

Dokumentu honek, halaber, azken bederatzi urteetan (2013tik 2021era) hautatutako adierazleetan ikusitako bilakaeraren argazki bat erakusten du, eta informazioa hiru urteko batez besteko balioetan aurkeztu da.

Hala, lortutako emaitzak hiru hezkuntza maila handitan antolatuta aurkeztu dira: lehen maila, bigarren maila eta hirugarren maila.

- Lehen maila: hezkuntza orokorra 16 urte eta gutxiagora arte, kualifikazio profesionalik gabe.
- Bigarren maila: derrigorrezkoa ez den hezkuntza orokorra eta/edo erdi mailako lanbide-heziketa.
- Hirugarren maila: goi mailako LH gradua, lizentziaturak, diplomaturak, unibertsitate-graduak, masterrak, doktoretzak...

Hala, ikerketa-proiektu honek Gipuzkoako helduek (25 urtetik 74 urtera bitartekoak) egindako ikaskuntza-jardueraren azterketa eta jarraipena jasotzen ditu, titulu ofizial bat lortzera bideratutako prestakuntza-jarduerak (ikaskuntza formala), modu antolatu eta iraunkorrean egiten direnak baina titulu ofizialik ez dakartenak (ikaskuntza ez-formala) eta modu informalean egiten direnak barne.

---

<sup>1</sup> 2021eko otsailean egin zen azken kontsulta.

## 2. Ikaskuntzan parte hartzea

### 2.1. Pertsonak eta ikasteko jarduera

**Bizitza osoko ikaskuntzako jardueretan parte hartzeak nabarmen egiten du gora lortutako ikasketa mailarekin.**


Gipuzkoako helduen hamarretik lauk inguruk hartu du parte azken hamabi hilabeteetan ikaskuntza-jardueraren batean. Proporzio hori oso antzekoa da aztertutako aldi guztietan.

Ikasketa mailari dagokionez, ikaskuntza-jardueretan parte hartzeak hirugarren mailako ikasketak dituztenen artean % 50eko muga gainditzen du; bigarren mailako ikasketak dituztenen artean heren bat ingurukoa da, eta lehen mailako ikasketak gainditzen ez dituztenen artean, berriz, % 20ra jaisten da.

Aipagarria da bai bigarren mailako ikasketak dituen biztanleriak, bai hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleriak azken hiru urtekoan (2019-2021) murriztu dutela ikaskuntzan duten partaidetza.

#### 1. grafikoa Ikaskuntzan parte hartzea (azken hamabi hilabeteak), lortutako ikasketa mailaren arabera. Aldi bakoitzeko batez besteko balioak


25 eta 74 urteko arteko biztanleriaren baiezeko erantzunen %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Depart.

Azken lau asteetan ikaskuntzan izandako parte-hartzeak antzeko dinamika erakusten du. Hala, Gipuzkoako helduen % 15,4k inkesta egin aurreko lau asteetan ikaskuntza-jardueraren batean parte hartu duela adierazten duen arren, ehunekoa % 6,1era jaisten da ikasketa maila baxuena dutenen artean, eta % 23,1era igotzen da ikasketa maila altuena dutenen artean, 2019-2021 aldian.

**2. grafikoa Ikaskuntzan parte hartzea (azken lau asteak), lortutako ikasketa mailaren arabera. Aldi bakoitzeko batez besteko balioak**



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Depart.

Bilakaerak erakusten du 2016-2018 aldian izandako partaidetza-tasa handia, hiru hezkuntza-mailetan handitu zena, baina, batez ere, hirugarren mailako ikasketak dituen taldean igo zena; aldiz, aldeak oso txikiak dira aztertutako beste bi aldien arteko konparazioan.



## 2.2. Pertsonak eta ikaskuntza formala

### Ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartze mailak lotura estua du berriz ere pertsonen ikasketa mailarekin


Ikaskuntza formala ikaskuntza-jarduera egituratuak dagokie; oro har, hezkuntza eremuan garatzen dira eta titulazio ofiziala lortzea dute helburu.

Ikaskuntza-jardueretarako oro har ikusitakoaren antzera, lotura zuzena dago lortutako gehieneko ikasketa mailaren eta pertsonen ikaskuntza formaleko jardueretan duten partaidetza mailaren artean. Hala, grafikoan ikus daitekeenez, 2019-2021 aldian, partaidetza-tasari dagokionez ehuneko 11,9 puntuko aldea dago lehen mailako ikasketak dituztenen eta hirugarren mailako ikasketak dituztenen artean (% 3,3 eta % 15,2, hurrenez hurren).

Bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen dagokienez, badirudi ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartzeak beheranzko joerarekin jarraitzen duela, eta 2019-2021 aldiko tasa (% 5,0) lehen mailako ikasketak dituztenetatik (% 3,3) nahiko hurbil dago. Aipatu behar da bi ikasketa mailen arteko "konbergentzia" hori adierazle honetarako eta aztertutako azken bi aldietarako baino ez dela ikusten.

### 3. grafikoa Ikaskuntza formalean izandako parte-hartzea (azken 12 hilabeteak), lortutako ikasketa mailaren arabera. Aldi bakoitzeko batez besteko balioak

25 eta 74 urteko arteko biztanleriaren baieztatu erantzunen %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Depart.

## 2.3. Pertsonak eta ikaskuntza ez-formala


### Hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonen ia erdiak hartzen du parte ikaskuntza ez-formaleko jardueretan

Ikaskuntza ez-formala edozein arlotan (ikastetxea, enpresa, kultura-zentroa, eta abar) ikaskuntza-helburu jakin batzuk lortzera bideratuta dauden, baina titulu ofizialik lortzea ez dakarten jarduerari dagokie.

Gainerako adierazleen kasuan bezala, horrelako jardueretako parte-hartze maila pertsonen ikasketa mailarekin estu lotuta dago. Hala, lehen mailako ikasketak dituztenek % 15,3ko partaidetza-tasa dute ikaskuntza ez-formaleko jardueretan; aldiz, bigarren mailako ikasketak dituztenen artean % 30,4koa da tasa hori, eta hirugarren mailako ikasketak dituztenen artean, % 45,3koa. Edonola ere, nabarmen jaitsi da azken aldian.

### 4. grafikoa Ikaskuntza ez formalean izandako parte-hartzea (azken hamabi hilabeteak), lortutako ikasketa mailaren arabera. Aldi bakoitzeko batez besteko balioak

25 eta 74 urteko arteko biztanleriaren baiezeko erantzunen %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Depart.

# 3. Ikaskuntzarako motibazioak eta oztopoak

## 3.1. Bizitza osoan ikasteko arrazoiak

**Arrazoi profesionalak bultzatuta, gehiago hartzen dute parte ikaskuntza ez-formaleko jardueretan goi mailako ikasketak dituztenek**


Helduek ikaskuntza- eta/edo prestakuntza-jarduerak egiteko dituzten arrazoiak askotarikoak izan daitezke. Análisi honetarako, jarduera horiek egiteko bi arrazoi jasotzen dira zehazki: arrazoi profesionalak eta arrazoi pertsonalak.

Hala, 2019-2021 aldian, ikaskuntza ez-formala egin zuten hamar pertsonatik zazpik arrazoi profesionalengatik egin zuten. Proporzio hori zertxobait jaisten da lehen eta bigarren mailako ikasketak dituztenen artean (% 62,2 eta % 65,6, hurrenez hurren), eta % 75,1eraino igotzen da hirugarren mailako ikasketak dituztenen artean.

Arrazoi profesionalengatik ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartzeari dagokionez, badirudi pertsonak lortutako ikasketa maila ez dela erabakigarria. Hala, bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonak dute baliorik altuena (% 57,6), eta, ondoren, hirugarren mailako ikasketak dituztenek (% 51,9) eta, azkenik, ikasketa maila baxuena dutenek (% 47,6).



**5. grafikoa Arrazoi profesionalengatik ikasten duten pertsonen proportzioa, lortutako ikasketa mailaren eta ikaskuntza motaren arabera. 2019-2021 aldiko batez besteko balioak**



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Depart.

### 3.2. Ikaskuntza-jardueretan parte hartzeko oztopoak

**Familia-erantzukizunak dira ikaskuntza-jardueretan parte hartzeko oztopo nagusia**

Erantsitako grafikoan ikus daitekeenez, aztertutako hiru kolektiboek ikaskuntza-jardueretan parte ez hartzeko emandako arrazoi gehienetan ez da alde nabarmenik ikusten, eta hiru kolektiboek oztopo bakoitzari emandako ordena berbera da.

Txosten honen ondorioetarako, beraz, honako arrazoi hauek hartuko dira aintzat: "prestakuntza ez da bateragarria nire lan-ordutegiarekin"; "familia-erantzukizunek ez didate uzten"; "motibazioa falta zait"; "nire ustez, ez ditut behar, nire ezagutzak nahikoak dira"; "ez dut horretarako adinik, zaharra naizela uste dut"; "garestia da; ezin dut ordaindu".


Esan den moduan, ikaskuntza-jardueretan parte hartu ez izana justifikatzeko hiru arrazoi nagusiak berdinak dira hiru taldeetan, eta honako hauek dira: jarduera hori familia-erantzukizunekin uztartzeko zailtasuna (% 31,8, % 34,2 eta % 28,3, hurrenez hurren, lehen mailako, bigarren mailako eta goi mailako ikasketak dituztenentzat), prestakuntzaren eta lan-ordutegiaren arteko bateraezintasuna (% 27,5, % 31,7 eta % 27,8) eta motibaziorik ez izatea (% 26,1, % 23,4 eta % 22,8).



Hala ere, kolektibo motaren arabera aldeak agerian geratzen dira gutxien aipatutako bi arrazoietan. Hau da, lehen mailako ikasketak dituzten eta ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duten pertsonen % 21,4k uste du horretarako zaharregia dela, eta aldiz, hirugarren mailako ikasketak dituztenen artean % 12,4k eman du arrazoi hori. Eta, era berean, lehen mailako ikasketak dituzten eta ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duten pertsonen % 11,4k horien prezioa aipatu du oztopo gisa, eta tasa horrek ia bikoiztu egiten du ikasketa maila altuena duen kolektiboarena (% 6,7).

**6. grafikoa Ikasteko oztopoak, azken urtean prestakuntza-jarduerarik egin ez duten pertsonak oinarri hartuta, lortutako ikasketa-mailaren arabera. 2019-2021 aldiko batez besteko balioa**

Prestakuntza-jardueretan parte hartzen ez duen 25 eta 74 urte arteko biztanleria



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeo Depart.

# 4. Ikaskuntzako ibilbidea eta ikasteko aurreikuspena


## 4.1. Ikaskuntza jardueretan jarraitzea

### Zenbat eta ikasketa maila handiagoa, orduan eta ikasten jarraitzeko jarrera handiagoa

Pertsonen ikasketa maila erabakigarria da ikasten jarraitzea aipatzen denean, hau da, pertsonak "urtero edo ia urtero" ikaskuntza formaleko eta/edo ez-formaleko jardueretan parte hartzeak zuzeneko lotura du lortutako ikasketa mailarekin.

Pertsonen herenak baino gehixeagok adierazi du etengabe parte hartzen duela ikaskuntza-jardueretan. Ehuneko hori % 50etik gorakoa da goi-mailako ikasketak dituztenen artean, eta bigarren mailako ikasketak dituztenen artean, berriz, tarteko tasa lortzen du (% 30 inguru); balio hori nabarmen jaisten da (% 13,2) lehen mailako ikasketak dituztenen artean. Bilakaera<sup>2</sup> pixka bat goranzkoa da aztertutako hiru kolektiboetan.

### 7. grafikoa Ikaskuntzaren jarraitutasuna, lortutako ikasketa mailaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeo Depart.

<sup>2</sup> 2013-2015 aldirako eskuragarri ez dagoen informazioa.

## 4.2. Ikasten jarraitzeko aurreikuspenak

### Goi mailako ikasketak dituztenen erdiak baino gehiagok ikasten jarraitzeko asmoa du


Aztertutako adierazle ia guztiekin gertatzen ari den bezala, lortutako ikasketa mailak ere eragina du datorren urtean ikaskuntza-jarduerak egiteari buruz pertsonak egindako aurreikuspenetan.

Hala, hirugarren mailako ikasketak dituztenen erdiak baino gehiagok (% 56,0) datorren urtean ikaskuntza-jardueraren batean parte hartzeko asmoa agertu du. Baieztapen horrek ikaskuntza-dinamikari buruzko emaitza indartzen du; izan ere, goi mailako ikasketak dituztenen % 54,2k dio urtero edo ia urtero parte hartzen duela ikaskuntza-jardueretan.

Era berean, bigarren mailako ikasketak dituzten hiru pertsonatik batek eta lehen mailako ikasketak dituzten bostetik batek adierazi dute datorren urtean ikaskuntza-jarduerak egiteko asmoa dutela.

### 8. grafikoa Datorren urtean ikaskuntza-jarduerak egiteko asmoa duten pertsonak, lortutako ikasketa mailaren arabera

25 eta 74 urteko arteko biztanleriaren baiezeko erantzunen %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Depart.



Izenburua:	Ikasten duten pertsonak eta lortutako ikaskuntza-maila 84. dokumentua, 2022ko apirila
Koordinazioa eta gainbegiraketa:	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia
Egilea	IKEI, research & consultancy S.A.
Landa-lana	Datakey, S.A.